



AGINDUA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ MERKATARITZA-LAGUNTZAKO PUNTUEN (MLP) EUSKAL SAREA SORTZEN ETA MERKATARITZA-LAGUNTZAKO ZERBITZUEN ZORROA ZEHAZTEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA ERABAKITZEN BAITA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak (aurrerantzean, 6/2022 Legea) ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduketa, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko; hain zuzen, edozein gairi buruzkoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Aipatutako legearen 12. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 13. artikulua, bestalde, zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Agindu honetan aipatutako prozeduraren antolamenduak, hasieratik bertatik, araua egitearen egokitasunari buruzko erabaki bat hartzea eskatzen du, bai eta haren beharrari eta bideragarritasunari buruzko hausnarketa bat egitea ere.

Bestalde, aipatu 6/2022 Legearen 13.1 artikulua ezartzen du prozedura hasteko aginduak honako hau jasoko duela:

- Bideragarritasun juridiko eta materialari buruzko balioespena.
- Antolamendu juridikoan izango dituen ondorioen aurreikuspena.
- Proiektatutako arauari edo eragindako arauari buruz egindako ebaluazioak – inpaktuari, emaitzei edo bestelakoei buruzkoak– bilduko dituen dosierra.
- Aurrekontuetan izango duen eraginari buruzko hurbilketa.
- Gaia eta proposatuko den arauketaren edukia direla-eta bidezko iritzitako izapide eta txostenen zerrenda, adierazita zergatik den eraginkorra, egokia eta beharrezkoa gaiaren berezitasunagatik edo lortu nahi diren xedeengatik nahitaezkoa ez den izapide bakoitza sartzea. Horrez gain, zehaztu egingo da, hala badagokio, xedapenak Europar Batasunaren izapideren bat igaro behar duen edo ez.



- f) Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta ordezkari-tza-maila handiena duten erakundeen identifikazioa.
- g) Testu artikulatuaren itzulpeneko edo idazketa elebidunerako teknika.
- h) Instrukzioa egingo duen administrazio-organoa.
- i) Urteko araugintza-planean sartuta ez dagoen arau-proposamena bada, justifikatu egin beharko da zergatik den beharrezkoa hura izapidetzea

Horregatik guztiagatik, honako hau azaltzen dugu:

LEHENENGOA. DEKRETU-PROIEKTUAREN HELBURUA ETA XEDEA.

Agindu honen xedea da Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortzea eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa –zehaztea helburu duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea, Euskadi osoko euskal merkataritza-sektoreari laguntza tekniko espezializatua eman ahal izateko, Merkataritzako Bulego Teknikoen egungo dirulaguntzen esparrutik harago, ezinezkoa baita dirulaguntzen deialdien bidez laguntza-programa horrekin jarraitzea.

Ekimen hau Gobernu Kontseiluak 2023ko irailean onartu zuen 2030eko Turismo eta Merkataritza Estrategiaren barruan kokatzen da, eta giltzarri estrategikoetako bat da: “egungo errealitate sektorial eta sozioekonomikoa jasoko duen eta hari erantzungo dion esparru juridiko eguneratu bat sortzea, eta sektorearen antolamendu eta egituraketa egokia bultzatzea”.

Era berean, funtsezko ildo estrategikoetako bat merkataritza-sektorearen gobernantza da, zeinetan ezinbestekoa den lankidetzaren publikoa eta pribatua nabarmentzen baitira, eta merkataritza-politiken translazio-ereduak eta politika horiek azken erabiltzaileei hots, hiri-merkataritzako enpresei, gaitzen dizkieten baliabideak eguneratzeko beharra eta interesa identifikatzen. Horregatik ikusten da beharrezkoa dela Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sare bat sortzea eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehaztea.

Azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da dekretu-proiektu hau egitea, ez baita bestelako alternatibarik ikusten.

BIGARRENA. ARAUAREN BIDERAGARRITASUN JURIDIKOA ETA MATERIALA.

Dekretu-proiektu hori Euskal Autonomia Erkidegoak abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen Autonomia Estatutuan bereganatutako eskumenak erabiliz gauzatzen da. Hain zuzen, 10.27 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari ematen dio barne-merkataritzaren gaineko eskumen eskusiboa.

Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, XOEPLk honako hau ezartzen du 12.1 artikuluan: «Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da».

Arauaren xedea Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortzea eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehaztea denez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila da arlo horretan eskumena duena, eta, beraz, araua egiteko prozedura hasteko agindua Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak eman behar du.

Eta hori lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 15. artikuluan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari esleitzen dizkiolako merkataritza-arloaren funtzioak eta jarduketa-eremuak.

HIRUGARRENA. ANTOLAMENDU JURIDIKOAREN GAINEKO ONDORIOAK.

Proiektatutako araua indarrean jartzeak bete egingo du txikizkako merkataritza-banaketaren sektoreari kalitatezko aholkularitza esperientziaduna emateko helburua; izan ere, orain arte, Merkataritzako Bulego Teknikoen funtzionamendurako Laguntza Programako dirulaguntzen deialdien bidez egin da.

LAUGARRENA. AURREKONTUAN DUEN ERAGINA.

Erregulatuko diren alderdiek dagokien administrazio publikoen aurrekontuetan izan dezaketen eragin ekonomikoaren zenbatespenari dagokionez, zenbatespen hori berariaz egingo den Memoria Ekonomiko batean jasoko da.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak indarrean duen aurrekontuan merkataritza-sektoreari aholkularitza espezializatua emateko kontu-sail bat jasotzen da; beraz, ez da aurreikusten dekretu-proiektu hau indarrean jartzeak aurrekontu horretan eragin zuzenik izango duenik.

BOSGARRENA. EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK ETA TXOSTENAK.

6/2022 Legearen 13.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko Aginduan adieraziko dira proposatutako erregulazioaren gaiaren eta edukiaren arabera egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak. Adierazitakoa kontuan hartuta, hona hemen aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko behar diren izapideak eta txostenak:

1. Prozedura hasteko Agindua egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea eta sail guztiei jakinaraztea.

6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasiera-agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-taulan argitaratu behar da.

Agindu hau iragarki-taulan argitaratzearekin, automatikoki egingo zaie jakinarazpena sail guztiei, hala badagokio, ekimenaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko oharrak egin ditzaten.

2. Dekretu-proiektua idaztea.

Hasierako Agindu honen edukia kontuan hartuta egingo da, lortu nahi diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak kontuan hartuta, honako printzipio hauen arabera: beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Era berean, aintzat hartuko dira aurreikusitako erregulazioaren egokitasuna eta legezketasuna bermatzeko

egokitzen jotzen diren kontsulten emaitza, 6/2022 Legearen 14.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.

Testuan txertatu beharko da Dekretu-proiektuaren zehaztapena justifikatzen duten arrazoi eta oinarri juridikoen azalpen egokia, 6/2022 Legearen 14.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren lehenengo apartatuaren 1. puntuan ere. Erabaki horren bidez, arau-xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak onartzen dira (2017ko abenduaren 15eko EHAA, 238. zk.).

XOEPLren 14.5 artikuluari jarraikiz, testua bi hizkuntzetan idatzi behar da, eta bi hizkuntzen berdintasuna bermatu hizkuntza bakoitzaren bertsioa egiteko orduan, araua idazteko prozesu osoan. Testuak bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du, aldez aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen. Halaber, testua idazterakoan hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabili behar da.

3. Genero-inpaktuari buruzko txostena.

6/2022 Legearen 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, proiektuaren testua idatzi ondoren, generoaren araberrako eraginari buruzko txostena idatziko da.

Txosten honen beharra bat dator Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoarekin, eta, hura egiteko, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez (2012ko irailaren 25eko EHAA n argitaratua, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren bidez) onartutako genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideei jarraituko zaie.

4. Arau-eraginaren azterketa-memoria.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikulua ezartzen duenez, espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen zuzendaritza-zentroak arau-eraginaren azterketari buruzko memoria egingo du nahitaez, xedapen horretan aurreikusitako moduan eta edukiarekin.

5. Arau-proiektua aldez aurretik onartzea eta egoitza elektronikoan argitaratzea.

Dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin baino lehen, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak, aldez aurretik, onartu egin beharko du dekretu-proiektua, 6/2022 Legearen 15.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aldez aurreko onarpen-aginduarekin batera, onartutako testu elebiduna eta aurreko apartatuetan adierazitako gainerako dokumentuak aurkeztuko dira. Horiek guztiek espedientea osatuko dute.

Aldez aurretik onartuta dagoen xedapenaren testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da, bereziki 6/2022 Legearen 16.3 eta 17.3 artikuluetan adierazitako ondorioetarako, kontuan hartuta argitalpen horren data aldi berean bideratzen diren izapide guztiak betetzeko epearen hasiera izango dela.

6. Entzunaldia eta jendaurreko informazioa.

Arau-testua aldez aurretik onartu ondoren, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egin beharko da, 6/2022 Legearen 17. artikuluan adierazitakoaren arabera. Izapide horren bidez, herritarrek parte hartzeko eskakizuna beteko da.

Entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak segidako edo beste une batean bete behar ez diren guztiekin batera egingo dira, epe berean, aldez aurretik onartutako testua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

7. Beharrezko txostenak eta irizpenak.

Prozedura bideratzean dagozkion nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako hauek bildu behar dira:

1. Txosten hauek batera eskatuko dira, 6/2022 Legearen 16. artikuluan xedatzen denaren arabera:

- a) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egiaztapen-txostena, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako Lehenengoa 2.1.b) iii) gidalerroan xedatzen denaren arabera.
- b) Memoria ekonomikoa, 6/2022 Legearen 15.5 artikuluan xedatzen denaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez. Memoria horretan aurreikusitako inpaktu ekonomikoa zehaztuko da.
- c) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoak egindako txosten juridikoa, 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatzen denaren arabera.
- d) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen ote duten argitzeko, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 2. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa den azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 8. artikuluan 1. apartatuan xedatzen denaren arabera.
- e) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren txostena, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren abenduaren 21eko 16/2023 Legean xedatzen denaren arabera.
- f) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dagoen Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte SA (EJIE) sozietate publikoari kontsulta egitea.
- g) Europar Batasunean egin beharreko izapideak. Ez da beharrezkotzat jotzen izapiderik egitea Europar Batasunean, dekretu-proiektu honen aplikazio-eremua eta xedea eta helburua kontuan hartuta.
- h) Enpresan duen inpaktuari buruzko txostena, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Proiektatutako arauaren xedeak ez du inolako eraginik enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan, eta, horregatik, ez da beharrezkotzat jotzen enpresaren eraginari buruzko txostena egitea.

i) Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena. Txostena Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3.5 artikulua araberako eskatutako da, artikulua horren arabera arlo horri eragiten dioten proiektuetan haren irizpena nahitaezkoa baita.

j) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza: Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikulua aplikatuta.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten guztiak aldi berean eta hilabeteko epe berean egingo dira, aurretiaz onartutako xedapen-testua EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik aurrera.

2. Aurreko izapideak amaitu ondoren, elkarren segidan beteko diren funtsezko txostenak:

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikulua xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan adierazitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Lan Harremanen Kontseiluaren eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen nahitaezko txostenak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 20 artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Tokiko Gobernuen Batzordearen nahitaezko txostena, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren arau- eta ekonomia-kontrolko txostena, bi arau hauetan ezarritakoari jarraikiz: Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), eta urriaren 31ko

464/1995 Dekretua, zeinaren bidez garatzen baita nola egin barruko kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea EAEn. 6/2022 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

8. Prozeduraren azken espedientea eta memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz eratuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikuluko horren 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

9. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpena eskatzea eta Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Espedientea osorik izapidetu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatuko da eta dokumentazio horixe bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrera, Jaurlaritzaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeak eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legeak (EABL) 3.1.c) artikuluan agindutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren legeak garatzeko edo betearazteko ematen dituen erregelamendu-xedapenen proiektuak direlako.

10. Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egite-prozedura amaitzean, dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

11. Publikotasuna.

Dekretu-proiektuaren publikotasunari eta argitalpenari dagokionez, 6/2022 Legearen 29. artikuluen arabera eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikulua betez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira erregelamendu-arauak.

12. Gardentasuna.

Prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea EAeko araudiaren atarian argitaratu beharko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik.

13. Tramitaguneraren bidez prozedura izapidetzea.

Prozedura izapidetzeko, «Tramitagune» aplikazio informatikoa baliatuko da, Gobernu Kontseiluaren erabaki hauei jarraikiz: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak onartzen dituen, eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren prozedura jakin batzuen izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

SEIGARRENA. XEDAPENAREN ERAGINPEAN DAUDEN SUBJEKTU ETA ERAKUNDE ADIERAZGARRIENAK.

Subjektu interesdun gisa identifikatzen dira eragina jasan dezaketen erakunde eta entitateak, eta herritarrak ere bai, oro har.

6/2022 Legearen 11. artikuluekin bat etorritik, 2024ko otsailaren 1ean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren agindu bat argitaratu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan. Agindu horren bidez, Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortzen eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen dekretu-proiektua jendaurrean jarri zen. Arauak eragiten dien herritarrei, erakundeei eta instituzioei aukera ematen zaie beren iritzia helarazteko.

ZAZPIGARRENA. ITZULPEN EDO IDAZKETA ELEBIDUNA EGITEKO TEKNIKA.

Dekretu-proiektua 6/2022 Legearen 5. artikuluan xedatzen denaren arabera idatzi behar da. Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzultzea izango da Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko erabiliko den sistema, hala xedatzen baitute 6/2022 Legearen 27.3 artikulua eta apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, zeinen bidez zentralizatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren mendeko Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak.

ZORTZIGARRENA. INSTRUKZIOA EGITEKO AGINDU ZAION ADMINISTRAZIO-ORGANOAK.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuaren 8.1.a) artikulua arabera, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Merkataritza Zuzendaritza izendatzea prozedura izapidetzeko organo-arduradun.

BEDERATZIGARRENA. DEKRETU-PROIEKTUA IZAPIDETZEKO AUKERA.

Arau-proposamena Dekretua egitea ez dago sartuta Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2024ko urtarrilaren 15eko Aginduaren bidez onartu zen Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2024. urteko arau-plangintzan —Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. artikuluan dago aurreikusita urtero plangintza egitea—, proiektua aipatutako agindua eman ondoren zehaztu eta zabaldu baitzen.

2030eko Euskal Merkataritzaren Estrategia Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onartu zen 2023ko irailean. Estrategia horretan zehaztu zen garrantzitsua eta beharrezkoa zela merkataritza-sektoreari laguntza tekniko espezializatua ematea, baina nabarmendu zen ezinbestekoa zela beste administrazio-esparru bat definitzea, Merkataritzako Bulego Teknikoen dirulaguntzen programak denboran zehar sortutako zalantza juridiko, eskumenezko eta administratiboak gainditzeko. Esparru berri hori eta hark izango duen irismena urteko araugintza-plana egin ondoren aztertu eta definitu da.

Azaldutako guztiari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA. Dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea, Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) Euskal Sarea sortzeko eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa definitzeko.

BIGARRENA. Merkataritza Zuzendaritza izendatzea aurretik aipatutako prozedura bideratzeko ardura duen organo izateko.

HIRUGARRENA. Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzea, 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

LAUGARRENA. Xedapena sortzeko prozedura aipatutako ekainaren 30eko 6/2022 Legeak zehaztutako esparru juridikoaren arabera egin dadila, bai eta agindu honetako azalpen-zatian adierazitako printzipioen arabera ere.

BOSGARRENA. Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz, sinadura digitalaren data.

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA